

Hamazazpi

2014ko udazkena



Ayuntamiento de Zigoitia
Zigoitiko Udala

- _ ZIGOITIA EUSKARAZ
- _ UDAL KONTUEN 7 GAKOAK
- _ ZIGOITIKO I BERDINTASUN PLANA
- _ GORBEIAKO MAGALEKO NARRASTIAK
- _ UDAL LIBURUTEGIAREN LEKU ALDATZEA
- _ EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA
- _ ZUBIALDE, EMAKUMEEN KULTURA ELKARTEA
- _ EGILLOLARRA ATERPEAREN BERRERAKITZEA



Hasteko...

03 Tokiko Emplegu Plana



04 Udal kontuak

Zigoitiko Udalak 2.410.237,25 euro gastatuko ditu aurten

Hemen eta orain



06 Eguneko Arretarako Landa Zentroa

Zigoitiko 20 bizilagunen etxea



08 Berdintasuna

Emakumeen eta gizonen arteko I Berdintasun Plana



09 Liburutegiaren leku aldaketa

Oketa Aretoan, aukera gehiagorekin

Made in Zigoitia



11 Zubialde

Emakumeen Kultura Elkarte

Planak



14 Gorbeia Egillolarra aterpea

Auzo-lankidetzaren adibidea



15 Zigoitia Euskaraz

Irailaren lehenengo bi asteburuetan

Azkena



16 Batzuk

- Sartu Hamazazpiaren Facebook-ean!
- Autobus orduetgiak

Tokiko Emplegu Plana

Udalak 2 pertsona langabetu kontratatu ditu baso-lanak egiteko

Zigoitiko udalerriko Tokiko Emplegu Planak langabetuen kontratazioa bultzatzea du helburu. Batez ere lan merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten taldeenak, esate baterako 35 urtetik beherako gazteak edo 45 urtetik gorako iraupen luzeko langabetuak. Horien barruan zeuden, hain zuzen ere, Udalak kontratatu dituen udalerriko 2 pertsonak. Irailaren 1etik azaroaren 30era arte ariko dira, hiru hilabetez eta jardunaldi osoan, gune berde eta basoetan mantentze eta kontserbazio lanak egiteko. Hautaketa Lanbideren bidez egin da (Euskal Emplegu Zerbitzuaren bidez).

Eta bete beharreko baldintzen artean, besteak beste, ondorengo eskatu da: langabetua izatea eta Lanbiden izena emanda egotea, udalerrian erroldatuta egotea duela urtebete gutxienez eta lan merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dituzten talde batekoa izatea. Era berean, eskainitako lanpostuetan formazioa edo eskarmentua izatea eskatu zaie.

Informazio gehiagorako:
udal bulegoetan
T_945 464041
www.zigoitikoudala.org

2014ko Zerga-ordaintzailearen egutegia

ZENTRO SOZIOKULTURALEKO IKASTAROAK
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Urriaren lehenengo hamabostaldian

ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA
INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK
Udaletxea. Telefonoa: 945 46 40 41. Asteleheneretik ostiralera 9:00etatik 14:00etara. Faxe: 945 46 40 52, e-mail: zigoitia@zigoitia.org

AHOLKUAK
Banku helbideratzeetan altarik edo aldaketarik egon bada edo interesduna etxebizitzaz aldatu bada, Zigoitiko Udalarri jakinaraziko zaio, hurrengo batean jakinarazpenak egin ahal izateko.

JARDUERA EKONOMIKOEN ZERGA
Borondatez kobratzeko epea: 2014-11-01 _ 2014-12-31
Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:
Abenduaren hasieran

Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak:
Ordaintzeko lekuak: Vital Kutzaren eta Euskadiko Kutzaren bulegoetan. Internet bidez, web orri honetan: www.zigoitikoudala.org (Nire ordainketa).

BETEARAZPEN EPEA
Araututako epea bukatu eta hurrengo egunean hasten da eta betearazte-errekarguak, premiamenduzkoak eta ohiko premiamenduzkoak ordaindu beharko dira Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak adierazitako epeetan.

Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak:
Zigoitiko Udalak zuzenean kudeatuko du ordainketa, helbideratu den finantza-erakundearen kontuan.

Staff

HAMAZAZPI. Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2014 ko udazkena

Azaleko argazkia: Elena Mota. **Editatzailea:** Zigoitiko Udala_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 · 01138 ONDATEGI (ARABA) · T_945 46 40 41 · www.zigoitikoudala.com · info@zigoitikoudala.com

Koordinazioa eta erredakzioa: Rosa Ortiz de Mendivil · romendivil@gmail.com

Diseinua eta maketazioa: Hirudesign Web Estudio S.L · www.hirudesign.com

Imprimaketa: Gráficas Irudi · www.graficasirudi.es · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiaatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu: www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

Zigoitiko udalak 2.410.237,25 euro gastatuko ditu aurten, iaz baino % 2,14 gutxiago

UDAL KONTUEN ZAZPI GAKOAK



%28 GEHIAGO NEKAZARI AZPIEGITURETARAKO

Aurtengo ekitaldian, hauxe da gehien hazi den diru saila, iaz baino % 28,56 gehiago. Igoera horren arrazoia da udalak hainbat langile kontratatuko dituela (tokiko enplegu egitasmoaren barruan), baso lanetan aritzeko. Kontzejuek aurreko urteetan jasotako diru kopuru berdina jasoko dute inbertsio gastuei aurre egiteko: 170.000 euro. Azpimarratzekoa da oinarrizko azpiegituretarako eta garraioetarako atalak diru kopuru txikia izango duela, 5.596,20 euro baino ez. Hori ulertzeko kontuan izan behar dira herrien arteko lanak eta Larrinoako lanak berriki eta aho batez onartutako inbertsioetarako eta azpiegituretarako kreditu gehigarri batekin finantzatzeko direla.

%21 GEHIAGO ESKOLETARAKO - Udallerrian dauden Musika eskolaren, Lehen Hezkuntzako eskolaren eta Haurreskolaren mantentze eta zaintze lanetarako dagoen aurrekontuak %21,86 egin du gora. Igoera horren zatirik handiena gastatuko da egun Musika eskola den eta lehenago udaletxea zen eraikineko teilatua konpontzeko.

%10 GEHIAGO, KULTURA ETA AISIALDIRAKO

Kultura garatzeko eta bizilagunen aisialdirako diru saila da gehien hazi denetakoa bat: 214.775,27 euro egokitu zaizkio, eta iaz baino %10,04 gehiago handitu da. Igoera horren zatirik handiena Gorbeiko Parke Naturalaren Ganadu FERIA berrirako izango da; aurten, Zigoitian antolatu da, lehen aldiz, eta Zaldiaren feriatik berezita.

Ganadu feria berria Gorbeia aldean larreak dituzten udalerrri ezberdinek antolatuko dute urtero. Ekitaldi hau Arabako Foru Aldundiak diruz laguntzen du, baita parke naturaleko beste udalerrri batzuek ere.

Kultura eta aisialdi atal honetan aipatu behar da musika jarduerak lantzen dituen Dominizubi elkarteak. Diru laguntzaren % 75eko goberna izan du, matrikulazioa handitu duelako.

%5 GUTXIAGO ONGINTZAN ETA LAGUNTZA ZERBITZUETAN - Programa honek, aurten, % 5,50ko jaitsiera izan du. Diru gutxiago gastatu da atal honetan bi diru sail desagertu direlako: batetik, adinekoek dituzten beharrezan

egoera aztertzeke dirua, eta, bestetik, berdintasun planaren jarraipenerako dirua (esan behar da bi lan horiek eginda daudela dagoeneko, 2013ko aurrekontuen barruan).

%15 GUTXIAGO ERAIKINEN ZAHARBERRITZERAKO, ETA MANTENTZERAKO, BIDE PUBLIKORAKO ETA ARGIZTAPENERAKO - Atal horietan %15,19 gutxiago gastatuko da. Gutxitze horren zatirik handiena ulertzeko kontuan hartu behar da enplegu planerako kontratatu diren langileek ez dituztela alor horiek jorratuko (iaz gertatu zen bezala). Behargin horiek nekazaritza-azpiegituretan arituko dira.

Bestalde, administrazio batzarrek bideak eta lorategiak zaintzen jarraituko dute. Horrez gain, aurtengo kontuetan Bengolarrako arboladia berreskuratzeko diru sail bat ere badago, baina iazkoa baino txikiagoa dela esan behar da.

ORGANO POLITIKOEN FUNTZIONAMENDU ATALA %13 GUTXITU DA

Alkateak eta zinegotziek ordainsari bat jasotzen dute ardura mailarengatik eta batzorde eta udalbatzara joategatik. Era berean, talde politikoei ere diru-kopuru bat jasotzen dute. Atal honi 90.875,85 euro dagozkio: iaz baino %13,05 gutxiago.

%5 GEHIAGO ADMINISTRAZIO OROKORAREN GASTUETARAKO

Udalak, aurten, 598.304,10 euro erabiliko ditu funtzionamendu gastuotarako: administrazioaren egitura eta jarduerak, udal langileen ordainsariak, mantenu gastuak, eta administrazioak egiten duen jardueraren zabaltea. Joan den urteko aurrekontuarekin konparatuz, % 5,25 gehiago gastatuko da aurten.

Langileen soldatak ez dira igoko eta aipatutako hazkuntza dator, neurri handi batean, 2012an (20/2011ko lege dekretuaren arabera), ordaindu ez ziren langileen aparteko ordainsarietatik (aurtengo aurrekontuan ordainsari horien aurrerapena gastuaren atalean agertzen da). Hori berdintzeko, kopuru bera agertuko da diru sarreren atalean.

Informazio gehiago nahi izanez gero, 2014ko aurrekontua web orri honetan begira dezakezu: <http://www.zigoitikoudala.com/es/ayuntamiento/presupuesto-municipal>

Gainera:

zerga nagusietatik datozen udalaren diru sarrerak (ondasun higiezin zerga, ibilgailuena, gainbalioena eta jarduera ekonomikoari dagokiona) iazkoen ia berdina izango dira. Eraikuntza zerga, ordea, %34 jaitsiko da.

Ondare errentari dagokion diru saila % 21,33 murriztu da, batez ere, ehiza barrutiak diru sarrera gutxiago izan duelako.

Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak eusten diote Zigoitiko udalari ematen dioten ohiko gastuotarako diru sailari. Beste horrenbeste gertatzen da bi erakunde horietatik datozen diru laguntzei dagokienez.

Aurrekontuaren eztabaidaren kronologia

Udal gobernua aurrekontuaren lehenengo zirriborro bat aurkeztu zuen, eta bizilagunek ekarpenak egiteko aukera izan zezaten, lau kontzejutan egin ziren lau asanbladetan azaldu zuen. Bizilagunek esandakoa entzundakoan, aurrekontu proiektu bat aurkeztu zion udalbatzari.

Sarragoa udal taldeak hainbat zuzenketa sartzeko eskatu zuen: zinegotziei eta talde politikoei ordainsariak gutxitzeko, eta musika eskolarako diru saila handitzeko, besteak beste.

EAJk alkatearen arduraldia erdira murrizteko proposamena aurkeztu zuen. Alderdi Popularrak ere gehiago, % 25era murrizteko proposatu zuen; horrez gain, alderdi horrek presoen senitartekoei laguntzak kentzeko eskaera egin zuen.

Eztabaidatu eta gero, Sarragoaren zuzenketa onartu ziren, talde horren eta Bilduren botoekin; EAJrenak eta PPrenak, berriz, atzera bota ziren. Azkenik, udalbatzak oniritzia eman zion aurrekontuari: 7 boto alde (Bildurenak eta Sarragoarenak), EAJren abstentzioa eta PPren aurkako botoa.

Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroa



Ez da pertsona helduentzako egoitza, ezta eguneko zentro bat ere. Are gutxiago geriatriko bat. Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroa, astelehenetik ostiralera arte eta ordu batzuetan zehar, gure udalerriko nagusi batzuek partekatzen duten familiako etxe erraldoia da, hain zuzen ere. Arratsaldean bakoitza bere etxera bueltatzen da, atsedean hartzera. Hemen egun bakoitza biziki bizitzen da eta!

Astelehenetik ostiralera, Zigoitiko udalerriko 65 urtetik gorako 20 herritar Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentrorra joaten dira. Vene -etxeke helduena, 95 urterekin- bezalako emakume eta gizonak dira. Autobusak etxean jasotzen du, egunero, Ondategira eramateko. Bertan, goizeko 11:00etatik zentroa itxi arte, 3 zaindari profesional zain izango ditu, eguneroko bizitzako lanetan laguntzeko prest (norberaren garbitasuna egiteko, bazkaltzeko orduan...). Eta bera bezalako hainbat lagun ere aurkituko ditu, aisia partekatzeko eta bide batez aktibo mantentzeko. Arratsaldeko 5etan etxera itzultzen da, hemen gakoa erabiltzaileak beren etxeetan bizi izaten jarraitzea delako, bizikalitate onargarriaz gozatzen duten bitartean. Horretarako, jakina, autonomia gradu

desberdinetako pertsonak izan behar dira: batzuek hasierako dependentzia mailan egon daitezke, baina inoiz ez egoera fisiko edota psikiko larri batean. Era berean, zentrorra joan ahal izateko erabiltzaileak 65 urte beteta izan behar ditu eta udalerrian bizi (izan ere, salbuespen gisa, familiaren etxeetan txandaka egoten diren pertsonen eskariak onartzen dira). Eta baliabidea pentsatuta dago bakarrik bizi diren eta bere harreman sozialak hobetu nahi dituzten pertsonentzako eta baita beren familiekin bizi diren baina laguntza beharra duten pertsonentzako ere (familiek ezin dituztelako zaindu edota lagundu). Zentroan 3 profesionalak zaintzen dituzte gure nagusiak. Familia zaintzaileak guztiak, haietako bik jardunaldi osoz egiten dute lan;



hirugarrena, berriz, lan handiena dagoen orduetan (11:30 - 14:30 bitartean normalean). Erabiltzaile bakoitzaren ezaugarri eta beharren arabera zaintzaileek jangelan, komunean, edota garbitegian laguntzen diete. Gainera, egunero antolatzen diren jarduerak zuzentzen dituzte. Esate baterako, eguneko prentsaren irakurketa, gaurkotasuna komentatzea, eskulanak, kultur ekintzak, ariketa fisikoak, ibilaldiak... Eta asteko programazioaz gain, hilero programatzen dituzte hitzordu desberdinak. Abuztuan, adibidez, baratze-lorezaintza lantegi bat eta Ondategi eta Gopegi arteko paseo atsegina egin dute.

'Oso harreman ona daukagu. Pertsona batek arreta gehiago behar badu, beraiek laguntzeko edo guri abisatzeko prest daude beti. Are gehiago, parte hartzea gustatzen zaie eta udalerriko bizitzan integratzen saiatzen gara. Eguzki Jaian eskulanak saltzeko postu bat jarri dugu; ateratako diruarekin Olentzerok ekarriko dituen oparietan erabiliko duguna. Euskara dakitenak ikastolara joaten dira umeekin hitz egitera. Agate Deunaren egunean, eskolako umeak bisitatzera etortzen dira..." azaldu digu Maitek, zaintzaile batek.

Gauzak horrela, ez da batere arraroa zentroan hain giro ona aurkitzea. Hor nagusi baitira zaintzak, maitasuna eta errespetoa.

(*: zentroa bere orduetegi osoan edo ordu batzuetan zehar erabil daitezke. Eta erabiltzailearen beharren arabera zerbitzu desberdinak eska daitezke (egokitutako bainua, jangela, garbitegia...). Pertsona bakoitzak ordaintzen duen diru kopurua kalkulatzeko, eskatutako zerbitzuak eta bakoitzaren ondasun eta diru sarrerak kontuan hartzen dira.)

Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroa 2005eko maiatzean inauguratu zen, udalerriko 65 urtetik gorako pertsonen beharrak aztertu ondoren. Orduan, alde zuzenetik aukeratutako bizilagun batzuk elkarrizketatu ziren (etorkizunean zentroaren erabiltzaileak izan ahalko zirelakoan), bakoitzaren egoera familiar eta soziala aztertzeko eta zentroaren sarrera arrazoitu ahal izateko. Lau pertsona hasi ziren erabiltzen eta, orduetik hona, kopuru horrek gorantz egin du. 2010ean handitze lanak egin behar izan ziren, gero eta handiagoa zen eskaerari erantzun ahal izateko. Gaur egun, plazen % 100a dago beteta.



ZIGOITIKO EGUNEKO ARRETARAKO LANDA ZENTROA

Helbidea: Bengolarra kalea 1. 01138, Ondategi (Araba)

Kontaktua: T_ 945 46 43 10

E-posta: crad@zigoitia.org

Ordutegia: astelehenetik ostiralera, 11:00etatik 17:00etara

Plazak: aldibereko erabilerako 20 plaza

Eskaeriak: Oinarrizko Zerbitzu Sozialetan, Udal Langile Sozialaren bitartez

Egun Sirimiri Servicios Socioculturales enpresak kudeatzen du zentroa, **Zigoitiko Udalaren eta Arabako Foru Aldundiaren** diru laguntzarekin.

Zigoitiko I Berdintasun Plana



Plana berdintasun arloan aurrera joan ahal izateko bete behar diren helburuak eta estrategiako gidalerroak - eta baita urteko ekintzak ere - jasotzen dituen dokumentua da. Eta aurten hasi da lantzen.

Komenigarria da gogoratzea nola duela hilabete batzuk diagnostiko bat egin zen Zigoitiko biztanleriaren parte garrantzitsu baten lankidetzari handiarekin, Planaren elaborazioa gidatzeko balioko duena.

Lan kronograma aurkeztu eta onartu ondoren fase desberdinak planteatu dira, non jasotzen ari diren politikarien ekarpenak, teknikarienak eta udalerriko elkarteak. Horiek baitira biztanleriaren beharren bozeramaleak.

Prozesua horrela antolatu nahi dugu pentsatzen dugulako Plana Zigoitiko protagonista nagusiek -hau da, udalerriko gizonen eta emakumeen- adostutako eta parte hartutako proiektua izan behar dela.

Udalak Planaren elaborazioan parte hartzeko gonbidapena luzatu nahi dizue, zuen proposamen eta ekarpenak guri helaraziz.

Nola egin dezakezue?

- elkarte desberdinetako arduradunegi egiten ari diren elkarrizketa pertsonalen bidez (telefonoz edota e-mailez)
- jai edota ospakizunak aprobetxatuz, zuen iritzia galdetzen dugunean
- eta zuzenean udal bulegoetara edo gure inguruan dauden elkarteetara helaraziz.

Eskerririk asko guztioi zuen parte-hartzea eta zuen kolaborazioagatik.

Zigoitiko Udala
Emakume eta gizonen arteko aukeren berdintasunarekin konprometituta

Leku eta aukera gehiago kulturarako Zigoitian



Liburutegia txiki geratu da. Gainera, martxan dagoen denbora gutxian eta erregistratzen duen ekintza maila altua kontuan hartuta, behar berriak antzeman dira (bere garaian irakurtzeko mahaiak jartzeaz harago). Horregatik guztiagatik, eta bere aurreko tokitik Oketa aretora lekualdatu dela aprobetxatuz, lanean ari dira zerbitzu funtzionalagoa, modernoagoa eta gaur egungo eskariari egokitu eskaintzeko. Ikasturteberriaren hasierarekin udal liburutegiko erabiltzaileek espazio zabalagoarekin gozatu dute (bikoitza baino gehiago, 46 m²tik 113 m²ra pasa da) eta irakurketaren aukera berriak aurkituko dituzte, esate baterako irakurgailu elektronikoak, haurren txokoa...

3 gune ezberdin

Liburutegiko tokialdaketak lekua era praktikagoan zatitzeko aukera eman du eta hiru gune ezberdin sortu dira: aretoaren alde batean ikasteko gunea jarri da eta hor kokatu dira izandako irakurketa mahaiak; aretoaren erdian irakurketa txoko bat, jarleku eroso hornituta; eta aretoaren beste alde batean, bere distribuzioa ahalik eta ondoen aprobetxatzeko, haurren txoko bat.

Aldi berean, apalategi gehiago kokatu dira material bibliografikoa erakusteko. Horrela begi bistan geratzen da, ikuskatzea eta mailegua

erraztuz. Gainera, lekualdaketaekin Oketa aretoaren barruan zegoen bulego zaharra berreskuratu da, 23 m²ko esparrua. Erakusten ez diren liburuak, liburutegiko materialak eta beste tresna batzuk gordetzeko erabiltzen da jada, biltegi bezala. Azkenik, liburutegiko ekipamendua ere hobetu da irakurgailu elektroniko berriak erositako.

Info gehiagorako, jo ezazu udal liburutegiaren blogera:

<http://liburutegiak.blog.euskadi.net/zigoitia/>

Zigoitiko Zentro Soziokulturaleko espazioen birkokapena

Liburutegia eraman da Oketa aretora, lehen gimnasioa zegoen lekura. Aldaketa honek gimnasioa Gorbeia aretora eramatera behartu du. Toki hori zen Jubilatuen Elkarrekin erabiltzen zuena. Hori dela eta, euren egoitza aldatu behar izan dute eta, aurrerantzean, liburutegia zegoen tokian egongo dira. Udalak eskertu egin nahi du Jubilatuen Elkarrekin aldaketa guzti horien aurrean adierazitako jarrera ona.

Euren urmaeletan, fresko freskoak

Gorbeiaiko magaleko narrastiak

Aranzadi Zientzia Elkarteko kideekin batera, Zigoitiko Udalak udalerriko narrastiak ikusteko irteera bat antolatu zuen maiatzean. Eguzkitsu atera zen eguna eta Muruan goizeko 10etan bildu zen jendea (40 bat lagun). Bertan, zeudenen artean, kotxeak antolatu eta Etxaguenera jo zuten. Han kotxeak utzi eta Oketa mendi magalera abiatu ziren. Ez ziren kasualitatez hara joan. Inguru horretan narrasti eta anfibioentzako habitat egokiak aurkitzen baitira. Orokorrean, leku hezeetan eroso sentitzen dira animalia hauek. Ingurune horietan zehar, Alberto Gosák, (Aranzadiko zientzialaria eta anfibio eta narrastietan adituak) azalpenak eman zituen, irteera oso bisita gidatu aberasgarri bihurtuz.

Besteak beste, uhandre palmatua (*Lissotriton helveticus*), baso-igel jauzkaria (*Rana dalmatina*) eta baso-igel gorria (*Rana temporaria*) anfibioak ikusi ahal ziren. Narrastien kasuan partaideek ezagutu ahal zituzten zirauna (*Anguis fragilis*), horma-sugandila (*Podarcis muralis*), sugandila bizierrulea (*Zootoca vivipara*) eta muskel berdea (*Lacerta bilineata*).

Irteera Zigoitiko Udalak martxan jarritako ingurumen proiektu baten zati bat da. Orain arte identifikazio lana egin da eta Zigoitiko narrasti eta anfibioen inbentarioa sortzen ari da. Finantzaketa lortzen bada, II faseari ekingo diote. Horretan kontserbazio lanak gauzatuko dira: animalien habitatak babestu edo bizitzeko behar dituzten baldintzak dituzten gunek egokituko dira. Aldi berean, gure ondare naturala ezagutarazteko asmoz, hitzaldiak, bisita gidatuak eta eskolarekin ingurumen heziketako ekintzak programatu dira.



Argazkiak: Aranzadi Zientzia Elkarteak.

Elkarrekin, hobeto eta urrunago

ZUBIALDE Emakume Elkarteak



Zubialdeko emakumeak Hondarribian.

Nola eta zergatik jaio zen?

ZUBIALDE elkarteak 1992ko martxoan sortu zen. Garai hartako Kultura zinegotziak udalerriko herri guztietako emakumeak bilera batera deitu zituen elkarteak eratzeko proposamenarekin.

'Une hartan ez zegoen harreman handirik emakumeen artean. Hori zela eta, elkartearen sorrerak balio zuen andreak kontaktuan jartzeko, euren kezkek partekatzeko, kurtso eta tailerrak egiteko aukerak errazteko, eta baita beste ekintza batzuk - hitzaldiak, bisitak...- egiteko ere. Azken finean, zeuden bakardadetik ateratzeko' azaldu digute gaurko Zuzendaritza-batzordeko partaideek.

Zenbat emakumek osatzen dute ZUBIALDE?

Egun 23 bazkide daude. Batzuk beste, 60 urte ingurukoak. Eta euren zereginak ere desberdinak dira; batzuk besteren kontura egiten dute lan, beste batzuk etxean egiten dute lan, eta beste batzuk, azkenik, jubilatuta daude.

Nola funtzionatzen dute?

ZUBIALDEaren egoitza Zigoitiko Zentro Soziokulturalean dago, Ondategin. Bulego txiki bat daukate elkartearen dokumentazioa gordetzeko eta areto bat tailerrak egiteko (beste talde batzuekin partekatzen dutena). Ikasturtean zehar bi egunez biltzen dira astero, normalean astelehenetan eta asteazkenetan

beraiek programatutako ekintzak egiteko. Astean gimnasiako bi ordu dituzte (Gorbeia Ikastolaren kirol-instalazioetan ematen dena). Eta hiru ordu, astero hau ere, lantegi desberdinak egiteko. Tailerrak bazkideen gustu eta interesen arabera antolatzen dira eta 22 urte hauetan denetarik egin dute: altzari-zaharberritzea, zeramika, kristala, bitxitegia, lorezaintza, memoria, fisioterapia, senda belarrak, sorospena, trapilloa... Eta jarduera fisikoari dagokionez, dantzak, pilates eta aerobic-ari ekin diote. Eta bola-jokorako talde bat ere sortu dute.

Ohiko programazioaz gain, urtero egun osoko kultur-ibilaldi bi antolatzen dituzte. Azkena maiatzean izan zen, Azpeitiko Burdinbidearen Museoa eta Astigarragako Sagardoaren Museoa bisitatzeko.

Egiten ditugun ekintza guztiez gain, elkarteak aisialdirako aukera ederra da guretzat. Gure artean esperientziak trukatzeko eta komunikazioa sustatzeko oso baliagarria da; hemen adiskidetasuna sortu eta indartu egiten da eta taldearen barruan zaletasunak sustatzen dira, kontatu digute ZUBIALDEko emakumeek.

+ Info gehiagorako:

Laura Alonso (Presidentea) • T_665 73 34 65

Aisia eta kulturaren mamua, lagunak eta fakturak

Testua eta argazki-aukeraketa: **Javier Arbulu**

Parkeko jardunaldiak (1)

Eguzkirik gabe, euritan eta ekaitzpean, eta publikoaren erantzun *irregularrekin* (ona poesiari buruzko bi jardunaldietan, eskasa kontzertuetan). Merezki izan du 1.000 € gastatzea? Ozen galdetzen diot nire buruari. Liburutegian egongo naizenez, eta liburutegia leku publikoa denez, etor zaitezte erantzutera. Edo helbide honetara idatzi: liburutegia@zigoitia.org

Batzuek erantzuten dute: 'Garrantzitsua ez da zenbat jende joaten den, baizik eta zer gertatzen den'. Beste batzuek: 'Hazten ari da'. Beste batzuek: 'Bazen ordua horrelako gauzak hemen egiteko'. Pertsona horiek guztiek liburutegiko erabiltzaile *militanteak* dira. Niretzako baliagarria da esaten dutena. Maitasunez esaten dute. Baina norbaitek ezetz esatea nahi nuke, ez duela merezi. Batez ere, eztabaida sortzea nahi nuke. Edukiari eta prezioari buruzko eztabaida, hain zuzen ere.

Fakturak

Liburutegiaren filosofia honetan datza: (1) gonbidatuarentzat eta ordaintzen duenarentzat salneurri duina jartzean (200 eta 250 euroren artean). (2) Udala eta ekintzaren egilearen arteko kontratazio zuzena egitean.

Gonbidatuak

Normalean, Liburutegiko jardunaldietara gonbidatzen ditugun pertsonak lagunak dira; zorionez, bidean aurkitutako lagunak. Logikoki, lagun bati ez genioke eskatuko alanbre batera igo eta ekilibristoa egitea, jakingo ez bagenu zutik mantentzeko gai dela eta lasaitasunez mugitzen dela (publikoaren gainera erortzeko arriskua legoke).

Antolaturiko hiru jardunaldietan Literatura Sari Nazionala jaso duten bi lagunek egin digute bisita: Xabier Olasok (2013) eta Iban Zalduek (2012 eta 2013); Maine eta Deustuko Unibertsitateetako irakasle batek: Rubén A.



Actuación de Doctor Sax. Argazkia: Jon Gorospe.

Ariasek; EHUko ikertzaile batek: Natalia Arbizuk; Gasteizko Udalarekin lan egiten duen *Stop motion* animatzaile batek: Sonia Estévezek; Medikuntza talde batek, neurologo ezagun baten - Arturo Goicoechearen- zuzendaritzapean; argitaletxe prestigiodunetan beren lanak argitaratu dituzten bi poetak: Hedoi Etxartek (Susa, 2008 eta 2012an / Alberdania, 2009an) eta Bruno Montané (El Aduanero, 2002an / Cartonera ratonera, 2009an); *Guggenheim* beka bat duen Zigoitikobizilagun batek: Miguel García de Cortázarrek; EHUko doktore batek: Txabi Arnalek (ondorengo argitaletxeetan argitaratu ditu lanak: Giltza, 2012an / Ibaizabal 2008, 2001 eta 1999an/Desclee 2000 eta 1998an); eta musikari bik: Txus López de Mendigurenek (*Arenna*, *Dr. Sax*, *Sacramento* eta *Electric Riders*) eta Joseba Baleztenak (*SextySexers*, *Sumision City Blues*, *Izaki Gardenak*, *Mugaldekoak*, *Joseba B. Lenoir* eta *Willis Drummond*).

Parkeko jardunaldiak (2)

Baina ez ditzatela izenek, sariek edo curriculum-ek zuten belarriak bete. Gezurti hutsak izan daitezkeguziak. Zergertatzen denikus dezagun. Xabi Olasok poesia eresi bat dela erakusten du, lokatzetatik hurbil dagoela zerutik hurbil egoteko. Hurrengo egunean emakume batek galdetu zidan ea posible zen kantatu genituen horien letrak lortzea; norbaitek esaten dit bere alabak gauero eskatzen diola *Tximeletra* bat.

Joseba B. Lenoir: Joseba tresnen hezitzailea. Joseba Sarri irakurtzen, pittin bat lotsati. Joseba gizakia zirkuitu elektriko, teknika eta bihotzaren artean. Joseba: grabaketa iragankorrak, beti berriak, espaziora salto egin eta apenas une batzuen buruan betirako ahanzturan galtzeko egindakoak. Joseba eta urrutitik begiratzen ziotenak, pixka bat azaleratzen zirenak, bizikletaz pasatzen zirenak. Neska bat maraka bat jotzen. Aurrerantz eta atzerantz, besoak besarkatuta, dantzatzen ziren umeak. Ume zaharrak.

Natalia Arbizu: gazte batek lagun duta, gorpil-aulki batean liburutegia gurutzatu zuen emakume oso zaharra, gazteak belarrira poeten izenak esaten zizkiola. Natalia onik ateratzen poesiari buruzko azken galderen ekaitzetik. Poesiaren gaineko azken galderetan zehar beren burua zeharkatzen uztera liburutegira hurbildu ziren lagunak. Deskalabruaren aurrean, Natalia eta umorea. Poesia amorratu eta dibertigarria. Poesia gogorra. Emakumeek idatzitako poesia.

Sax Doktorea: eguna gauaren koloreekin kamuflatzen ari dela ikustea. Astiro astiro. Sax Doktorea kantuan ari den bitartean, poema berri bat irakurtzen duen artean, hirugarren gitarraharia apurtzen du. Garaiezina. Hiru kandela piztuta, eta bat piztu gabe. Ezkerreko taldeak eta eskuinekoak canon bat probatzen dute. Kantuan. Berrito ere mundu guztia kantuan. Hasiera batean, olaturik gabeko petanka eta bolodun gure hondartzan, menturazko marea artean, hareatan eserita. Baten bat gerturatu da, eta 10 € eman dizkit mutilaren diskorako... Zuek esango duzue. Baina mesedez, esan.



Xabi Olasolo y sus Tximeletrak. Argazkia: Elena Fernández.



EGILLOLARRA aterpearen berreraikitzea, auzo-lankidetzaren adibidea

Edo nola Zigoitiko dozena bat bizilagunek, astoek Gorbeira igo nahi ez zituzten materialak garraiatzea lortu zuten

Mendizalea bazara Egillolarra bidexka hamaika aldiz ikusi duzu, Muruatik abiatu eta Mairuelegorretaren gainetik Gorbeia gailurrera doan bidean. Inguru horretan Zigoitiko artzain batzuek euren aterpeak artaldeak udan zaintzeko erabiltzen zituzten. Beitia familiaren kasuan, esate baterako. Artzain txabolak 60. hamarkadara arte horrela erabili ziren. Orduan, pixkanaka pixkanaka, abere zaintza mota hori uztearen ondorioz abandonaturik geratzen joan ziren. Orduan ere mendizaleak (gero eta jende kopuru handiagoa) eraikuntza apal horiekin ohartzen hasi ziren eta bat-bateko aterpe moduan hasi ziren erabiltzen eguraldi txarra zegoenean.

Duela hamabi bat urte, gehiengoaren hondatze egoera kontuan hartuta, Zigoitiko udalak erabaki zuen horietako bat zaharberritzea. Une hartan konturatu zen zailtasun handiena materialak garraiatzean zetzala, txabola harrobitik 4 kilometrora dagoelako. Makineria bereziaren laguntzarekin leku konkretu batera ailegatu ahal zen, baina handik aterperaino sarbide mekanikorik gabeko kilometro erdia geratzen zen. 'Lanaren lehenengo fase batean, material guztia lur orotako ibilgailuarekin eta *dunper* batekin eramane zen, bideak uzten zuen punturaino. Azken zatia –oso sarbide zaileko aldapa bat– astoekin egiten saiatu ginen baina hirugarren bidaiarako animaliek ihes egin zuten, gogoratzen du parte hartu zuen herritar batek.

Konponketa etenda geratu zen orduan eta 3 urte pasatu behar izan ziren Udalak auzolan



bat deitu arte, 2010ean, materialaren garraioari berriz ekiteko. Dozena bat herritar baino gehiagok erantzun zuen eta bi asteburutan txabolara tresneria eta material guztia (zurak, teilak, legarra, zementua, erremintak...) eramane lortu zuten. Une horretatik aurrera Udalak 2 langabe kontratatu zituen lanak burutzeko. Aterpea erabat zaharberritu zuten, hormetatik teilaturaino. Iaz lurzoru berria jarri zuten. Eta aurten atea jarri da. 'Beti daude egiteko gauzak, baina oso ondo geratu da, kontatu digute erabiltzaileek.

Udazkena iristearrekin, mendizale askok baieztatu ahal izango dute. Eta baita disfrutatu ere. Hori guztia, auzolanari esker eta astoek ihes egin arren.

Badator Zigoitia Euskaraz bigarren asteburua

Urteroko hitzorduarekin jarraituz, aurten ere ZIGOITIA EUSKARAZ ekitaldia antolatu dugu Zigoitiko Udalak, Kirikio euskara taldeak eta Zigoitia Euskaraz taldeak elkarlanean. Zigoitiko eta inguruko euskaldun eta euskaltzaleentzako hitzordu garrantzitsua da irailaren hasierakoa, eta festa giroan euskara kalera ateratzea eta erabilera handitzea du helburu nagusi.

Bi asteburuko egitaraua osatu dugu antolatzaileok, urtero bezala. Dakizue, joan den asteburuan hainbat eta hainbat ekitaldi izan genituen, Zigoitiko hainbat txokotan: *Korrika bizikletan* egin genuen Olanotik Muruara, ondoren *Irrien Lagunek* egin ziguten bisita, eta baita *Parradust* taldeak ere; hurrengo egunean, euskarazko meza izan genuen Ondategiko elizan, eta baita dantza taldekoen erakustaldia ere...

Igande borobila

Iristear dugun asteburua ere halaxe dator: hainbat eta hainbat ekitaldiz betea. Alde batetik, irailaren 13an, larunbata, orain dela urte batzuetara arte ohikoa zen traktore lehiaketa egingo da berriz ere, 18:00etan, Gopegiko Gurutze Plazaren ondoko zelaietan. Herriko traktore-gidariak duten abilezia ikusteko aukera ederra izango da, beraz.

Baina, aurreko guztiari garrantziarik kendu gabe, egunen batek baldin badu benetako pisua, bigarren asteburuko igandea da hori. Goizean hasi eta gauera arte, hainbat eta hainbat ikuskizun ez osatutako festa giroko egitaraua prestatu dugu irailaren 14rako. Goizean, azkeneko bi urteetan bezala, herritar talde batek urte luzez egindako Mairuelegorretako jaialdiaren antolaketan jarraituko du, Udalaren eta antolatzaileen egitarauaren osagarri gisa. 11:00etatik aurrera, Mairuelegorretako kobazuloan, Xabi Solano, Kike Amonarriz, Txalamako txalaparta taldea, Mantxi eta Harkaitz Estiballes bertsolariak... eta

ZIGOITIA EUSKARAZ 2014

IRAILAK 6, LARUNBATA (Olanotik Muruara)
16:30-18:00 Korrika bizikletan: Olanon hasi eta Muruan bukatu. Parte-hartzaileek kaskoa eramane behar dute!
Korrika en bicicletas empieza en Olanon, y termina en Murua. Los participantes deben llevar casco.
18:00 Merienda
18:30 Umeentzako ikuskizuna: **IRRIEN LAGUNAK**. Largarista eta Martin Bertso Ondoren, jatekoa eta edatekoa (pintxoak) eta dantza-plaza **PARRADUST** taldearekin
Después, algo para comer y dantza-plaza con PARRADUST.
Eguraldi txarra eginez gero, ekitaldi guztiak frontoian (Bengolarra) egingo ditugu. Si el tiempo no acompaña, todo el programa se hará en el frontón (Bengolarra).

IRAILAK 7, IGANDEA (Ondategin)
12:00etan Meza euskaraz eta Mairu abesbatza
Meza en euskara y coral Mairu.
12:45etan: Oketa Alai dantza taldea, Legutiko Txistulariak eta Mairu abesbatza
Ondoren, jatekoa eta edatekoa
Después, algo para comer.

IRAILAK 13, LARUNBATA (Gopegin)
18:00etan **TRAKTORE LEHIAKETA**, Gurutze plazaren ondoko zelaietan
Prueba de tractores, en la finca junto a Gurutze plaza.

IRAILAK 14, IGANDEA
15:00etatik aurrera Bengolarrako frontoian:
Herri bazkaria (txartelak salgai betiko lekuan. Erosi irailaren 5a baino lehen!!)
Dantza-plaza
ERROMERIA DANTZADI taldearekin
Iraila osoan zehar, Mairuelegorretako festarekin lotutako dokumentu zaharren erakusteta, zentro soziokulturalan.
En septiembre, exposición de documentos antiguos relacionados con la fiesta de Mairuelegorreta, en el centro sociocultural.

ANTOLATZAILEAK: ZIGOITIKO UDALAK, KIRIKIO, ZIGOITIA EUSKARAZ TALDEA, Mairuelegorretako Jaiak

beste hainbat artistaz osatutako jaialdi ederraz gozatu ahal izango duzue. Ondoren, eguerditik aurrera, urteroko plana izango dugu, Ondategira jaitsi ondoren: herri bazkaria eta berbera *Dantzadi* taldearekin, Bengolarra frontoian txartelak Bengolarra tabernan daude salgai, 13 €an. Antolatzaileon aldetik, gonbidapena luzatu nahi dizuegu zigoitiar guztioi, antolatutako ekitaldietan parte hartzea. Eta, baita mezu bat ere: bi asteburutan euskarak *inbaditzen* du Zigoitia, baina horrek ez du esan nahi urtean zehar alde batera utzi behar dugunik... Gozatu, eta bizi euskaraz!!

www.facebook.com/hamazazpialdizkaria

Sartu HAMAZAZPIren facebook-ean!

Oraindik ez duzu HAMAZAZPIren facebook-a ezagutzen? Aldizkariko erreportaje eta artikulu guztiak eskaintzen dizkizun web-orria da. Gainera, paperezko edizioan sartzen ez diren aparteko eduki eta argazkiak ikusi ahal izango dituzu. Eta Zigoitian galdu ezinekoak diren deialdi, hitzordu eta gertaerak ere bai. Hori gutxi balitz, gure edukiak zure lagunekin partekatu, komentarioak egin, zure argazki eta deialdiak igo... ditzakezu, nahi izanez gero. Emaiozu 'atsegin dut' botoiari eta etor zaitez gure on-line komunitatera.

Gure helbidea facebook-en: www.facebook.com/hamazazpialdizkaria



Autobusen ordutegiak

ETXAGUEN → VITORIA-GASTEIZ		10A LINEA														
		ZESTIFE ZESTIFE	OKIZTA AKOZTA	ETAAGUEN ETAAGUEN	MURUA MURUA	LARRINOKA LARRINOKA	MALURDA MALURDA	ZARATE ZARATE	ONDARTEGU BEGEBUTEZA ERRE OINDARTEGI	GORPEI GORPEI	ERBIE ERBIE	BURJUGA BURJUGA	BERRIBANO BERRIBANO	APODAKA APODAKA	GORBEA MERKATUTZA GUREA CENTRO COMERCIAL GORBEA	VITORIA-GASTEIZ VITORIA-GASTEIZ
Astehelentzako	{ <ul style="list-style-type: none"> * * * * 			7:00	7:02	7:04	*	*	*	7:08	7:10	*	7:13	7:18		7:50
Casilerara							*	*	*	10:08	10:10	*	10:13	10:18	10:25	10:50
Lunes a				10:00	10:02	10:04	*	*	*	15:43	15:45	*	15:48	15:53	16:00	16:25
Viernes				15:35	15:37	15:39	*	*	*	20:58	21:00	*	21:03	21:08	21:15	21:40
			20:50	20:52	20:54	*	*	*								
<p>*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua</p> <p>Letra beltzez dauden ordutegiak, ikasturtean zehar bakarrik ematen da zerbitzua</p> <p>*Servicio de acercamiento con aviso previo</p> <p>Los horarios en negrita sólo se realizan durante curso escolar</p>																

VITORIA-GASTEIZ → ETXAGUEN		10A LINEA														
		VITORIA-GASTEIZ VITORIA-GASTEIZ	GORBEA MERKATUTZA GUREA CENTRO COMERCIAL GORBEA	APODAKA APODAKA	BERRIBANO BERRIBANO	BURJUGA BURJUGA	ERBIE ERBIE	GORPEI GORPEI	ZARATE ZARATE	ONDARTEGU BEGEBUTEZA ERRE OINDARTEGI	MALURDA MALURDA	LARRINOKA LARRINOKA	MURUA MURUA	ETAAGUEN ETAAGUEN	OKIZTA AKOZTA	ZESTIFE ZESTIFE
Astehelentzako	{ <ul style="list-style-type: none"> * * * 	9:00	9:25	9:32	*	*	*	9:42	*	*	*	9:46	9:48	9:50	*	*
Ostiralera		14:45	15:10	15:17	*	*	*	15:27	*	*	*	15:31	15:33	15:35	*	*
Lunes a		20:00	20:25	20:32	*	*	*	20:42	*	*	*	20:46	20:48	20:50	*	*
Viernes																
<p>*Hurbiltzeko zerbitzua, aldez aurretik abisatua</p> <p>*Servicio de acercamiento con aviso previo</p>																